kutxabank

Dirección de Comunicación · Nota de prensa

Ordainketa digitalen sistema asteartean gaituko da, maiatzaren 15ean, **San Isidroko ongintzako herri bazkaria** dela eta

Valdegovía/Gaubea eta Añana izango dira 'esku-dirurik gabeko' Euskadiko lehenengo herriak

- **Agintari foralek eta herrikoek Añanara egingo duten bisitaldi instituzional batek emango dio hasiera Euskadin aitzindaria den esperientzia pilotu horri**

- **Nahi dutenek, dagoeneko, edozein motatako erosketak egin ditzakete Arabako landa-eremu horretan, eskudirua erabili barik, *contactless* teknologiaren eta ordainketa digitalen bidez**

2018ko maiatzak 13. Valdegovía/Gaubea eta Añana udalerriak izango dira etorkizuneko ordainketa-sistemaren aitzindariak, mota guztietako ordainketak egin ahal izango baitira eskudirurik erabili gabe, *contactless* teknologiari eta beste ordainketa sistema digital batzuei esker. Arabako landa-eremuko herri bi horiek izango dira ordainketa-sistema digitalak normaltasun osoz erabiliko dituzten Euskadiko lehendabiziko udalerriak, Kutxabankek eta Visa Europak Foru Aldundiaren eta aipatutako udal bien lankidetzaz garatu duten ekimenari esker.

Ordainketa-sistema berriaren aktibatze ofiziala asteartean, maiatzak 15, Gesaltza Añanako Gatz Araneko foru ordezkariek eta herriko ordezkarien egingo duten bisitaldi instituzionalaren bitartez egingo da. Bisitaldi horretan hainbat ordezkarik hartuko dute parte, hala nola **Ramiro González** Arabako ahaldun nagusiak, **Juan Carlos Medina eta Juan Carlos Ramírez-Escudero** Añanako eta Valdegovía/Gaubeako alkateek, **Joseba Barrena** Kutxabanken Erakunde zuzendari nagusiak, **Eduardo Ruiz de Gordejuela** Xehekako Negozioaren zuzendari nagusiak, **José Luis Bastarrica** Arabako Sarearen zuzendariak, **Inés Monguilot** Marketin zuzendariak eta **Visako** ordezkariek **Espainian**.

Harrera-ekitaldia amaitu ostean, **San Isidroko ongintzako herri bazkaria** egingo da, **Espejon**, 14:00etatik aurrera, Espejoko Gizarte Etxean. Euro 1eko prezio sinbolikoa izango du eta Kutxabanken baliabide digitalen bitartez ordaintzeko aukera izango da. Biltzen den diru guztia Valdegovíako Gobea LHIko IGEra joango da, eta Vital Fundazioak beste euro bat ipiniko du bildu den euro bakoitzeko.

Maiatzaren 7tik ekainaren 30era bitartean, Añanako eta Valdegovía/Gaubeako saltoki eta ostalaritza-establezimenduetan, eskudirurik gabeko ordainketa egiten duten pertsona

guztiek 15 opor-ihesaldiren zozketan hartuko dute parte. Ihesaldi horiek hotel batean gau bateko egonaldia dira, bi lagunentzako gosaria eta afaria barne.

Esperientzia pilotu hori borondatezkoa da saltokietarako nahiz erabiltzaileentzako, eta Valdegovíako (Espejo) Kutxabanken bulegoak apirila osoan eta maiatzeko lehenengo asteetan burutu duen egokitzapen-prozesuaren ostean abiarazi da. Inguruko establezimendu guztiak *contactless* teknologiadun ordainketa-terminalez edo TPV gailuz hornitzeko egin da lan.

Aldi berean, ekimen horretan parte hartu nahi izan dutenek txartelak, *stiker*-ak edo *contactless* ordainketa-eskumutur berriak kontratatzeko aukera izan dute, eta, KutxabankPay doako aplikazioa deskargatuz lortu daitekeen Bizum, eskuko telefono bidezko ordainketa-sistemari buruzko beharrezko argibide guztiak jaso dituzte. Horretarako, behin behineko informazio-bulegoak ezarri dira, bai Valdegovíako Udalean, bai Gesaltza Añanakoan.

Eskuko telefono, txartel, *sticker* eta eskumuturrekoen bidezko ordainketak

Cashless esperientzia Kutxabankek eskaintzen duen ordainketa-teknologia aurreratuenari esker garatuko da, horien artean **Visa *contactless* txartelak** eta hainbat gailu, esaterako, *stiker*-ak edo ordainketa-eskumuturrak. Gailuon abantaila nagusia ordainketak azkar eta eroso egitea ahalbidetzea da.

***Stiker*-ak** eskuko telefonoari edo diru-zorroari itsasten zaizkio, eta erosketak egiteko erabil daitezke, *contactless* txartela izango balira bezalaxe, **ordainketa-eskumuturrak** bezala.

Kasu guztietan, eragiketak oso erraz egingo dira. Nahikoa da *contactless* teknologiaren erabiltzaileek txartela edo gailuak saltokiko datafonora hurbiltzearekin. Erosketak berehala ordaintzen dira eta betiko segurtasun mailari eutsita. Gainera, 20 eurotik beherakoak badira, ez da beharrezkoa erreziborik sinatzea edo gako pertsonalik tekleatzea.

Ordainketak **eskuko telefonoen** bitartez egitea nahiago dutenek, dohainik deskargatu ahal izango dute KutxabankPay, eta beste tresna batzuen artean **Bizum** ordainketa-plataforma dakar.

Kutxabank ahalegin handia egiten ari da irtenbide teknologiko berriak etengabe gehitzeko, bere bezeroei balio erantsi handiagoko zerbitzua eskaintzeko lehentasunari jarraiki. Kontuan izan behar da, gaur egun, Bankuaren bezeroen % 38 inguru erabiltzaile digitalak direla, hau da, lehentasunez dihardutela online eta batzuek ia beti. Banku arloko ohituretan aldaketa etengabeak dakartzan testuinguru horretan, Finantza-taldea agenda

digital biziaz egiten ari da lan 2018ari begira, bere bezero digitalen erabilera-esperientzia hobetzen jarraitzeko helburuz.